

## Laboratorio de Creación Escénica



Baratza aretoa

Arte eszenikoak lan egiteko eta ulertzeko

**Baratza aretoa:** Aldabe plazatxoa 4

01012 Vitoria-Gasteiz

Vital Fundazioa Parasite Kolektiboataldeko kideekin elkarlanean ari da gune baten sorreran, partekatze eta arte eszenikoetan euren lan egiteko eta ulertzeko modua ikertzeko.

Laborategira sartzea interpretazioa eta sortze-lan eszenikoa ikertzeko aukera aparta da, *emsemble* kontzeptuari jarraiki lan egiten duen kolektibo baten barruan. Metodologia horrek dantza eta interpretazioa erabiltzen ditu sortze-lanerako guneak zabaltzeko, zeintzuetan sentiberatasunaren eta taldean entzuteko jardueraren bitartez, gizabanakoaren adierazkortasuna bilatzen den, irudimenezkoa eta zehatza.

Laborategiak ikerketa eta esperimertzio artistikoa ditu helburu eta ez interpreteen prestakuntza. Hori dela eta, partaideek prestakuntza oinarri bat izan behar dute, diziplina eszeniko edo gorputz-diziplinaren batean. Saioen trebakuntza lan psikofisikotik abiatzen da eta nolabaiteko gorputzaren jarrera eta zorrotasun mentala eskatzen ditu.

Ekimen hori Vital Fundazioaren 2017. urteko laguntzen deialdira aurkeztutako proiektu baten atal bat da.

Informazio gehiago: <http://parasite-eszena.com/>

---

**Fundación Vital Fundazioa**

Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz

945 776 858

[info@fundacionvital.eus](mailto:info@fundacionvital.eus)